



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

OHIKO OSOKO BILKURA SAIOARI DAGOKION AKTA,
2018KO APIRILAREN 27AN EGINA

ALKATEA

Juan Felix Naberan Ozamiz jauna (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK

Julián Maria Uriarte Lamikiz jauna (EAJ-PNV)

Edorta Ibarra Basabe jauna (EAJ-PNV)

Eduarne Murga Santisteban andrea (EAJ-PNV)

Carlos Mendiola Ugalde jauna (EAJ-PNV)

Aitziber Ribas Bilbao andrea (EH BILDU)

Jasone Basterretxea Oyarzabal andrea (EH BILDU)

IDAZKARIA:

Amaia Abanzabalegui Aranguren andrea

Bi mila eta hamazortziko apirilaren hogeita zazpian, ostirala, Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, arratsaldeko bostak eta hogeita hamar minutu izanik, Gauteviz Arteagako Udaletxeko Bilkura bildu da saio berezian eta lehen deialdian, aurretik horretarako deialdiari jarraiki.

Osoko Bilkurako zinegotzi guztiak saioan parte hartu zuten. Saio hau Alkate jaunaren aurrean egiten da, akta hau sinatzen duen idazkari-kontu-hartzailearen laguntzarekin.

Presidentziak Saioa ireki ondoren, **GAI-ZERRENDAN** dauden gai ei buruz berba egin da:

Lehenengo.- 2018ko martxoaren 16ko data duen saioko aktaren zirriborroa onartzea, egokia bada.

Idazkariak 2018ko martxoaren 16ko saioko akta aditzera ematen du, eta hura aho batez onartzen da.

Bigarren.- Kontratazio Mahai Iraunkorraren kideak onartzea, egokia bada.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Ikusita orain arte Udalak osatutako kontratazio-mahaiek ez dutela betetzen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legearen 2. Xedapen Gehigarriko 7. atalean xedatutakoa.

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko apirilaren 13koa.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA- Orain arte osatutako kontratazio-mahaiak baliogabetzea.

BIGARREN.- Gauegiz Arteagako Udalaren kontratazio-mahai orokorra osatzea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko 9/2017 Legeak xedatutakoa betez.

- Presidentea: Alkatea edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- Kidea: Gauegiz Arteagako Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea edo haren ordezkoa, Korte Zubiko Udaleko idazkari eta kontu-hartzailea.
- Idazkaria: Gauegiz Arteagako Udaleko administrari laguntzailea edo haren ordezkoa, Korte Zubiko Udaleko administrari laguntzailea.

Kontratazio-mahai nagusiko kide guztiek hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea dute.

Alabaina, gaiaren arabera, beharrezkotzat jotzen diren funtzionario eta aholkularien laguntza eskatu ahal izango da. Haiek ere hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botoa emateko eskubidea.

Gauegiz Arteagako Udaleko zinegotziek eskubidea dute kontratazio-mahai nagusiaren bileretara entzule joateko.

HIRUGARREN.- Kontratazio-mahai nagusiko kideen izenak kontratatzailearen profilean eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

LAUGARREN.- Pertsona interesdunei akordio honen berri ematea eta zer errekurso jar ditzaketen adieraztea.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Hirugarren.- N1705590C eta N1705589E katastro-zenbaki finkoa duten lursailen jabetzaren lagapena onartzea, egokia bada.

Ikusita 2018ko martxoaren 5ean Bizkaiko Foru Aldundiak udaletxean aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroa: 437), zeinetan Bizkaiko Foru Aldundiak errepide zaharreko 870 m² (Zelaieta Kalea 63, Gautegiz Arteaga) eta 79 m²-ko ondare-arloko lursail zati bat (Zelaieta 63, Gautegiz Arteaga) lagatzeko aukera azaltzen den, biak ere foru-aldundienak, udalak lursail horiek zerbitzu publikoak eskaintzeko erabil ditzan, eta ikusita proposamena egokitzat jo ondoren gobernuko langileek administrazio-espeditentari hasiera eman ziotela aipatutako ondasunen lagapena bideragarria den ikusteko.

Ikusita udal arkitekto aholkulariaren txosten teknikoa.

Ikusita Udaleko idazkari eta kontu-hartzaileak igorritako txosten juridikoa eta fiskalizazio-txostena.

Aintzat hartuta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 10., 13. eta 109. artikuluetan xedatutakoa, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena, eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 21. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa.

Kontuan hartuta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 65. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, eta abuztuaren 28ko 1373/2009 Errege Dekretuaren 38. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoa, zeinen bitartez Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen den.

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko apirilaren 13koa.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

LEHENA.- Jarraian adierazten diren ondasun higiezinaren jabetza doan lagatzea, udalak lursail horiek zerbitzu publikoak eskaintzeko erabil ditzan:

- Errepide zaharreko 870 m² (Zelaieta Kalea 63, Gautegiz Arteaga), Gautegiz Arteagako Udalaren katastroan N1705590C zenbakia duena eta Gernikako Jabetza Erregistroan erregistratuta dagoena (Artxibo Nagusiaren 1883. Liburukia, Gautegiz Arteagako Udalaren 27. Liburua, 140. folioa, 1522. finka, 1. inskripzioa, idufir: 48010001076133).
- 79 m²-ko ondare-arloko lursail zati bat (Zelaieta 63, Gautegiz Arteaga), Gautegiz Arteagako Udalaren katastroan N1705589E zenbakia duena eta Gernikako Jabetza Erregistroan erregistratuta dagoena (Artxibo Nagusiaren 1883. Liburukia, Gautegiz Arteagako Udalaren 27. Liburua, 89. folioa, idufir: 48010001072227).

BIGARREN.- Aipatutako ondasun higiezinak mantentzearen gastuak beren gain hartzea.

HIRUGARREN.- Udalak lursail horietan zerbitzu publikoak eskain ditzan lagatzen da jabetza.

Gautegiz Arteagako Udalari egotzi ahal zaion arrazoiren batengatik baldintza hori betetzen ez bada, lagapena bertan behera utziko da eta lagatutako lursailak Foru-erakunde lagatzailearen eskuetan geratuko dira berriro, ondasun eta akzesio guztiekin. Horrez gain, erakunde horrek eskubidea izango du lursailean eragindako kalteengatik kalte-ordainak jasotzeko, aditu batek tasazioa egin eta gero.

Hori guztia azaroaren 16ko 3/2006 Foru Arauaren 100., 103.1 eta 104. artikuluetan xedatutakoa betez, zeinen bitartez Bizkaiko Lurralde Historikoko Ondarea arautzen den.

LAUGARREN.- Lursailaren titularrari errekerimendua egitea, lagapen honen baldintzak eskritura publiko bidez formalizatzeko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

BOSTGARREN.- Alkateari eskumena ematea hemen adostutakoa betetzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

Laugarren.- EH Bildu alderdiak sustatutako adierazpen instituzionala onartzea, egokia bada.

Ikusita Jasone Basterretxea andreak EH Bildu alderdi politikoaren izenean 2018ko martxoaren 27an aurkeztutako adierazpen instituzionala (sarrera-erregistroa: 588).

Kontuan hartuta Informazio Batzordearen aldeko irizpena, 2018ko apirilaren 13koa.

Batzorde honek, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren,
IRIZPEN HAU EMATEN DU:

LEHENA.- Jasone Basterretxea andreak EH Bildu alderdi politikoaren izenean 2018ko martxoaren 27an aurkeztutako adierazpen instituzionala onartzea (sarrera-erregistroa: 588). Testuak honela dio:

“DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga muestra su preocupación y su más absoluto rechazo ante la orden de encarcelamiento de Jordi Turull, Carme Forcadell, Raúl Romeva, Jospe Rull y Dolors Bassa, ya que dicha decisión atenta contra los derechos democráticos fundamentales.

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga denuncia que Jordi Turull, Carme Forcadell, Raúl Romeva, Jospe Rull y Dolors Bassa han sido detenidos y encarcelados por motivos políticos.

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga traslada su apoyo y solidaridad a Jordi Turull, Carme Forcadell, Raúl Romeva, Jospe Rull y Dolors Bassa, así como a toda la sociedad catalana, y exige la excarcelación inmediata de los cinco.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga pide al Estado español que abandone la estrategia represiva contra las libertades fundamentales, ya que vulnera los derechos democráticos fundamentales.

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga ratifica que Cataluña, al igual que Euskal Herria y cualquier otro pueblo del mundo, tiene legitimidad democrática para decidir su futuro político, y son los ciudadanos quienes democráticamente deben establecer los límites de la misma.

El Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga muestra su preocupación y su más absoluto rechazo ante la detención de Carles Puigdemont, ya que dicha decisión atenta contra los derechos civiles y políticos fundamentales. Así pues, el Ayuntamiento de Gautegiz Arteaga exige su liberación y la derogación de la euroorden”.

Bosgarren.- Gautegiz Arteagako udal hilerriari buruzko ordenantza onartzea, egokia bada.

Ikusita Gautegiz Arteagako udal hilerriari buruzko ordenantza bat behar dela.

Kontuan hartuta 2018ko apirilaren 13ko eta 20ko informazio batzordeen aldeko irizpenak.

Kontuan hartuta ordenantzak onartzeko prozedura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarria.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA.- “Gautegiz Arteagako udal hilerriari buruzko behin-behineko Ordenantza onartzea”. Ordenantzak honela dio:

“Gautegiz-Arteagako Udala

2018ko maiatzaren 17ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 94 zenbakia, iragarkia argitaratu zenetik espedientea jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da Gautegiz-Arteagako Udal Hilerriari buruzko Ordenantza. Jakinarazpen orokorrerako aldaketaren testua



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

osorik publiko egiten da.

GAUTEGIZ ARTEAGAKO UDAL HILERRIARI BURUZKO ORDENANTZA

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK.

1. artikulua.—Udal hilerria

Gautegiz Arteagako udal hilerria zerbitzu publikoko ondasuna denez gero, Udalak soilik administratzen, zaintzen eta zuzentzen du, Ordenantza honetan jasotzen diren baldintzak betez, Agintaritza Judizialari eta Osasun-agintaritzari dagozkien eskumenei kalterik egin gabe.

2. artikulua.—Udal-eskumena

Udalari dagozkio honako hauek:

- a) Hilerria antolatzea, zaintzea, garbitzea eta egokitzea.
- b) Hilerriaren barne-araudia.
- c) Lursailen eta hilobien emakidak esleitzea, eta edozein motatako hileta-eskubideak aitortzea.
- d) Lursailak okupatzearen, lan-lizentziak jasotzearen eta hileta-eskubideak ematearen truke legez ezarritako zenbateko eta tasak kobratzea.
- e) Osasun eta higiene neurriak betetzea.
- f) Lizentziak ematea ehorzketa-unitateetan hilarriak, gurutzeak zein monumentuak jartzeko, eta haiek kontrolatu zein ikuskatzea.
- g) Hilerriaren titularra den erakunde publikoari dagozkion bestelako funtzioak.

3. artikulua.—Partikularren eskubideak eta betebeharrak

Hona hemen partikularren eskubide eta betebeharrak:

- a) Kanposantuan lurperatze duina izateko eskubidea, jaiotza, arraza, sexu, erlijio edo bestelakoengatik bereizkeriarik egin gabe.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- b) Ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera, hileta-eskubideak erabili eta norberaren erlijio edo ideologiari dagozkion errituak aukeratu ahal izatea.
- c) Hilobiak baldintza egokietan mantentzea, estetikari eta apaingarri publikoei dagokienez.
- d) Ordenantza Fiskalean ezarritako zerbitzuak kontratatzean ordaindu beharreko tasak ordaintzea.
- e) Udalak edo beste edozein erakunde eskudunak emandako xedapenak errespetatu eta betetzea, Hildakoen Polizia Sanitarioari buruzko Araudia betetze aldera.
- f) Udalari jakinaraztea hileta-eskubideen titulartasunean eta hileta-eskubideen titularrak diren pertsonen helbidean dauden aldaketak, horren berri izan eta 2 hilabeteko epean.

4. artikulua.—Erljioak

Erljio desberdinek egokitzen jotzen duten eran egingo dute hileta, betiere hildakoak errespetatuz.

5. artikulua.—Ordutegia

Hilerriaren ordutegia eta gorpuak hartzeko ordutegia Udalak ezarriko ditu Alkate Dekretu bidez.

Debekatuta dago Ordenantza honetan zehaztutako ordutegitik kanpo hilerrian sartzea, Udalak baimendutako kasuetan izan ezik. Ordutegia betetzen ez dutenei errieta egin eta kanporatuak izango dira, eta kasuaren arabera haien aurka joko da administrazio-bidean edo auzibidean.

6. artikulua.—Bisitarien jokabidea

Bisitariak errespetuz jardungo dute aldi oro. Hala egin ezean, Udalak lege neurriak hartuko ditu arau hori hautsi dutenak eremua uztera behartzeko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Mozkortuta dauden pertsonak, txakurrekin edo bestelako animaliekin doazenak eta saltzaile ibiltariak ezin dira hilerrian sartu.

7. artikulua.—Debekuak

Hilerri barruan debekatuta daude salmenta ibiltariak, bai eta edozein motatako propaganda egitea ere.

Txakurrak eta bestelako animaliak ezin dira hilerrian sartu, itsu-gidariak direnean eta pertsona itsu bati laguntzen ari direnean izan ezik.

8. artikulua.- Argazkiak eta ekitaldiak

Hilerrian argazkiak ateratzeko (ikuspegi orokorrekoak zein zatikakoak) eta printzipioz toki honen helburuarekin zerikusirik ez duten ekintzak egiteko Udalaren baimena beharko da, eta betiere hilerrian dauden beste erabiltzaileak errespetatu beharko dira.

9. artikulua.—Ibilgailuen zirkulazioa

Debekatuta dago ibilgailuarekin sartzea, edozein motatakoa, hileta-ibilgailuarekin edo Udalak baimendutako bestelako ibilgailuekin izan ezik.

Erabiltzaileek Udalak ezarritako arauak eta seinaleak errespetatuz gidatu behar dute.

10. artikulua.—Mugatutako eremuak

Debekatuta dago hezurtegi nagusian baimenik gabe sartzea.

Hildakoaren senideek gorpuaren aldamenean egon nahi badute kaperan dagoen bitartean, hura ehortzi baino lehen, hala egin ahal izango dute Udalak berariazko baimena eman badu, eta betiere arauak betetz.

11. artikulua.—Definizioak

Hona hemen Ordenantza honetan erabilitako hitz batzuen esanahia:

Gorpu: Gizakiaren gorputza, hil eta hurrengo bost urtetan.

Gorpu-hondar: Gorpuaren materia organikoa desagertu ondoren geratzen dena, pertsona hil eta bost urte igaro direnean.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Usteltze: Gorpuaren materia organikoa desagerrarazten duen prozesua, mikroorganismoen eta beste animalia batzuen erasoaren ondorioz.

Eskeletizazio: Materia hilaren desintegrazioaren azken fasea, hezur-hondarrak banatzen direnetik, zati bigunik eta eskeletoa lotzen duen zatirik gabe, haiek erabat mineralizatzen diren arte.

Errausketa: Beroaren bidez gorpua errauts bihurtzea.

Gorpua behin-behinean gordetzea: Usteltze prozesua atzeratzeko metodoak erabiltzea.

Baltsamatze edo tanatopraxia: Usteltze fenomeno estaltzeko metodoak.

Hozte: Irauten duten bitartean, gorpua usteltzea eragozten duten metodoak, temperatura modu artifizialean gutxitzeari esker.

Erradionizazioa: Usteltzea eragiten duten germenak suntsitzea, erradiazio ionizagarrien bidez.

Gorpuzki: Gizakiei ebakitako edo kendutako gorputz-atalak, eta gorpu eta gorpu-hondar kontzeptuen barruan sartzen ez direnak.

Hilkutxa, garraiatzeko hilkutxa eta gorpu-hondarretarako kutxa: Horietako bakoitzaren ezaugarriekin bat datozenak.

II. KAPITULUA. TITULARTASUNA ETA INSTALAZIOAK

12. artikulua.—Titulartasuna

Udal hilerria Gauegiz Arteagako Udalari dagokio soilik. Hari dagokio gura zuzentzea, administratzea, arautzea eta kontserbatzea, Estatuak zein Euskal Autonomia Erkidegoak emandako edo etorkizunean ematen dituzten araubide orokorretan ezarritakoari kalterik egin gabe, bakoitzak bere eskumenen arabera.

13. artikulua.—Instalazioak

Udal hilerriak honako hauek ditu:

- a) Kapera edo gurtzeko gune berezia.
- b) Hilerrian kontserbazio- eta mantentze-lanak egiteko beharrezkoak diren material eta tresnak gordetzeko biltegia.
- c) Panteoiak.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

d) Horma-hilobiak.

e) Zoruko hobiak.

Horrez gain, honako hauek ere izan ditzake udal hilerriak:

a) Hezurtegi komuna.

b) Errautsak uzteko kolunbarioak.

c) Gorputegia.

III. KAPITULUA. ADMINISTRAZIOA ETA HILETA-ZERBITZUAK

14. artikulua.—Administrazio-kudeaketa

Hilerriaren administrazioa hileta-zerbitzuez arduratzen den Udalaren sailaren eskuetan egongo da.

15. artikulua.—Hileta-zerbitzuak

Hona hemen hileta-zerbitzuei lotuta Udalak dituen funtzioak:

1. Hilerria osatzen eta apaintzen duten elementuak zaintzea.

2. Hilerria garbi mantentzea.

3. Alkate-presidenteak edo hark baimendutako arduradun politikoak emandako aginduak betetzea, eta antzematen diren irregulartasunak haiei jakinaraztea, zeregin hori duten langileen bitartez.

4. Entregatzen zaizkion gorpuak jasotzea eta garraiatzea, haiek ehorzteko, eta hala dagokionean gorputegian mantentzea.

5. Ehorzketarako baimen agiria jasotzea, eta zerbitzua eman ondoren hura itzultzea.

6. Gorpuak ehorzteko edo hobitik ateratzeko beharrezkoak diren ekintza materialak gauzatzea, hala dagokionean, eta hilobiak behar bezala ixtea eta estaltzea, ematen zaizkion ildoetara jarraikiz.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

7. Hilobiak hustu eta garbitzetik jasotako arropak, hileta-tresnak eta bestelako gauzak suntsitzea.

8. Hilerrian ordena egokia bermatzea, eta lekuari zor zaion begirunea asaldatzen duten pertsonak, jarduerak eta ekintzak saihestea.

9. Ehorzketen, hobitik ateratako gorpuen eta lekualdaketen erregistro-liburua egunean izatea.

16. artikulua.—Erregistro-liburuak

Hilerriak behar bezala funtziona dezan eta bertako jarduera modu egokian kontrolatzeko, liburu hauek egunean izan behar dira:

- a) Ehorzketen erregistro-liburua.
- b) Hobitik ateratako gorpuen eta lekualdaketen erregistro-liburua.
- c) Hilobien erregistro-liburua.

Ahal den heinean, liburuok formatu elektronikoa egongo dira, baina paperean ere egon daitezke.

17. artikulua.—Ehorzketen liburua

Ehorzketen erregistro-liburuan datu hauek idatziko dira:

- a) Hildakoaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta bestelako datu pertsonalak.
- b) Helbidea eta jatorria.
- c) Heriotza-data.
- d) Heriotzaren arrazoia.
- e) Ehorzketa-data.
- f) Zein horma-hilobi, panteoi edo hilobitan ehortzi den, hura identifikatzeko xehetasun nahikoekin.
- g) Ehorzketa baimendu duen epaitegia.

18. artikulua.—Hobitik ateratakoen eta tokiz aldatutakoen liburua

Hobitik ateratako gorpuen eta lekualdaketen erregistro-liburuan datu hauek idatziko dira:

- a) Gorpuaz arduratuko den pertsonaren izen-abizenak, NAN zenbakia eta bestelako datu pertsonalak.
- b) Hobitik atera edo garraiatu egingo den hildakoaren izen-abizenak eta bestelako datu pertsonalak.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- c) Heriotza-data.
- d) Gorpua nora lekualdatuko den hura berriz ehorzteko.
- e) Gorpua lekualdatzeko edo hobitik ateratzeko baimena eman duen erakundea, eta baimenaren data.

19. artikulua.—Hilobien liburua

Hilobien erregistro-liburuan datu hauek idatziko dira:

- a) Titularraren izen-abizenak eta bestelako datu pertsonalak.
- b) Esleipenaren data eta horrekin lotura duten bestelako datuak.
- c) Hilobien identifikazioa, zehazki non dauden eta ordena zenbakia.
- d) Hilobi bakoitzean ehortzi diren pertsonen izen-abizenak eta bestelako datu pertsonalak, eta ehorzketa bakoitzaren data.
- e) Esleipena iraungitzeagatik edo beste edozein arrazoi dela eta, libre eta Udalaren eskuetan geratu diren hilobiak.

IV. KAPITULUA. ZAINZA ETA ERANTZUKIZUNAK

20. artikulua.—Zaintza Udalaren eskutik

Gautegiz Arteagako Udalak hilerriko bideak, estolderia, argi-sistemak, zuhaitzak, lorategiak, eraikinak eta interes orokorreko bestelako elementuak mantentzeko, kontserbatzeko, garbitzeko zerbitzuak emango ditu.

21. artikulua.—Zaintza partikularren eskutik

Partikularrak arduratuko dira hilobiak garbitzeaz eta kontserbatzeaz.

Hala egin ezean, udal hileta-zerbitzuak jakinarazpena bidaliko dio emakidadunari, adierazitako epean beharrezkoak diren lanak gauza ditzan; bestela, Udalak egingo du bere kargu, Ordenantza honen 48. artikuluan eskubidea iraungitzeari buruz zehaztu denari kalterik egin gabe.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

22. artikulua.—Erantzukizunak

Gauteviz Arteagako Udalak hilerria zainduko du, baina ez du bere gain hartuko hirugarrenek gauzatzen dituzten kalte zein lapurreten gaineko erantzukizunik. Ezta fenomeno naturalek (haize bortitzak, ekaitzak...) eragindako kalteen gainean ere.

V. KAPITULUA. GARRAIOA ETA LEKUALDAKETAK.

23. artikulua.—Hilkutzak

Debekatuta dago gorpua hilkutxa gabe garraiatzea, lekualdatzea edo ehorztea.

Hilkutxan ehorzketarako baimena duen gorpua soilik egon daiteke, kasu hauetan izan ezik:

- a) Erditzean hil diren ama eta jaioberria.
- b) Hondamendiak.
- c) Anormaltasun epidemiologiko larriak.

Azken bi kasuetan aurretiko baimen sanitarioa behar da.

Hildako txiroentzako hilkutzak Administraritzak emango ditu.

Kasu guztietan, barruan gorpua duten hilkutzak garraiatu aurretik eta dauden tokitik atera baino lehen, itxi egin behar dira.

24. artikulua.—Garraiatzeko modua

Gorpua hil-autoetan garraiatu eta lekualdatu behar dira. Gorpua bizkarrean eraman ahal izateko, arrazoi sendoak eman eta baimena eskuratu behar da. Garraiorako, ibilbidea eta ordutegia zehaztuko dira, eta gutxi gorabehera zenbat pertsona egongo diren. Baimena udaletxean eskatu behar da 24 ordu lehenago.

25. artikulua.—Gorpua etxean edo baimendutako toki batean mantentzeko arauak

Gorpua hilaren etxean edo baimendutako beste tokiren batean egongo dira mediku eskudunak heriotza berretsi arte.

Gorpua arin deskonposatzen denean, kutsadura-arriskua dagoenean edo beste edozein arrazoi dela eta, pertsona hil eta hogeita lau ordu igaro baino lehen gorpua



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

garraiatzeko baimena eman dezake Osasun-agintaritzak. Kasu horretan, gorpua leku baimendu batean egongo da aldi batez.

Baltsamatutako gorpuk laurogeita hamasei orduz egon daitezke hilaren etxean edo baimendutako beste tokiren batean, eta behin-behinean gorde direnak, berriz, hirurogeita hamabi orduz.

26. artikulua.—Gorpua erakustea

Udalak baimena eman dezake gorpuk publikoki erakusteko, gehienez ere pertsona hil eta berrogeita zortzi orduz, betiere, osasun-agintaritzaren aldeko txostena badago.

VI. KAPITULUA. HILOBIAK

27. artikulua.—Sailkapena

Udal hilerrian bost (5) hilobi-mota daude:

- a) Horma-hilobiak
- b) Gorpu-hondarretarako horma-hilobiak
- c) Kolunbarioak
- d) Panteoiak
- e) Zoruko hobiak

28. artikulua.—Udalaren konpromisoa

Gauteviz Arteagako hilerriaren egungo instalasioez gain, Udalak estatistiken arabera beharrezkoak diren instalazio berriak eraikiko ditu, eta hileta-eskubideak emango dizkie horien gainean hala eskatzen duten pertsonen, eskaeren ordenari jarraikiz, baldin eta Ordenantza honetan ezarri diren baldintzak betetzen badituzte.

29. artikulua.—Berdintasuna

Udalak horma-hilobien, kolunbarioen, panteoien, lureko hobien eta hilerriko bestelako elementuen inguruan baldintza tekniko eta estetikoak ezarriko ditu, hala nola, sistema, ixteko modua, kolorea, tamaina, materiala eta abar, haien artean berdintasuna mantentze aldera.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

30. artikulua.—Lanak

Udal hilerrian edozein motatako lanak egin baino lehen (besteak beste, panteoiak konpontzea edo hilarriak jartzea) Udalaren baimena eta lizentzia behar dira. Lanari dagozkion zergak eta tasak kobratuko dira, eta hilerrira atxikita dauden udaleko langileek gainbegiratuko dute.

Panteoi, lurreko hobi, horma-hilobi zein kolunbarioetan egiten diren inskripzioak hileta-eskubidearen titularrak ordainduko ditu, eta Udalak ezarritako zehaztapenekin bat etorri beharko dira.

31. artikulua.—Partikularrek baimenik gabe jarduteko debekua

Udalaren baimenik gabe partikularrek ezin dute hilerrian jardun (adibidez, errautsak panteoietan zein horma-hilobietan utzi; horma-hilobiak, kolunbarioak zein panteoiak ireki; lurreko hobietan zuloak eta lanak egin; edo gorpu-hondarrak zein errautsak ehortzi zein hilobitik atera).

32. artikulua.—Udalaren ildoak

Udalaren baimena behar da hilkutzak udal hilerriko edozein hilobitan sartzeko, hark ezarritako ildoei jarraikiz, eta Udaleko langileek prozesua gainbegiratuko dute beti.

Udala da hilobiak nola ordenatuko diren zehazten duen organo eskuduna.

1. ATALA. HORMA-HILOBIAK ETA KOLUNBARIOAK

33. artikulua.—Horma-hilobien baimenari buruzko arau orokorrak

Horma-hilobiak eta gorpu-hondarretarako horma-hilobiak Osasun-poliziak ezarritako osasun-arauekin eta tamainarekin bat etorri behar dira.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Gorpua berehala eta 15 urtez gordetzeko emango da horma-hilobien gaineko hileta-eskubidea. Horren truke Ordenantza Fiskalean zehaztutako tasa ordaindu beharko da.

34. artikulua.—Horma-hilobietako gorpu-hondarrak ateratzea

Horma-hilobian egongo den 15 urteko epea Erregistro-liburuan idatzitako ehorzketa-datatik aurrera zenbatzen hasiko da. Aipatutako epea iraungitzean, Udalak gorpu-hondarrak atera eta hezurtoki komunean gordeko ditu hilabete. Epe horretan, dagokion tasa ordaindu eta gero, jaraunsleek gorpu-hondarretarako horma-hilobi baten emakida eskatu ahal izango dute. Hilabete hori igarota halako eskaerarik egin ez bada, gorpu-hondarrak hezurtoki komunean gordeko dira, markarik eta identifikaziorik gabe, eta baliteke haiek suntsitzea. Horma-hilobi bakoitzean gorpu bakarra ehortzi daiteke, lehendik zeuden gorpu-aztarnak behar bezala ateratzen badira izan ezik.

Udalak hildakoaren senideei jakinaraziko die, gutxienez hogeitun egun lehenago, gorpu-aztarnak zein egun eta ordutan aterako diren. Ordurako, hildakoaren senideek beren jabetzako elementuak kendu behar dituzte, gorpu-hondarrak ateratzeko prozesua oztopa dezakete eta. Bestela Udalak berak kenduko ditu, gerta litezkeen kalte edo hausturen gaineko erantzukizunik bere gain hartu gabe.

Horma-hilobian gorpua ehorzteko hileta-eskubidea iraungitzen denean gorpua oraindik gorpu-hondar bilakatu ez bada, bost urteko hileta-eskubide berria eskainiko zaie senideei, aplikatzekoak diren zerga-baldintzetan.

35. artikulua.—Gorpu-hondarretarako horma-hilobien eta kolunbarioen gaineko baimena, eta gorpu-hondarrak ateratzea

Gorpu-hondarretarako horma-hilobiak, gorpu baten hondarrak dituzten hilkutzak sartzeko prestatutako lekuak dira.

Kolunbarioak, gorpuak edo gorpu-hondarrak erraustearen ondorioz sortutako errautsak dituzten kutxatilak sartzeko prestatutako lekuak dira.

Gorpu-hondarretarako horma-hilobien eta kolunbarioen gaineko hileta-eskubideak 20 urterako emango dira. Dagokion Ordenantza Fiskalak esleipen



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

horretarako ezarritako tasa ordaindu eta gero esleituko dira. Esleipenaren epea iraungitzen bada, gorpu-hondar guztiak atera eta hezurtegi komunean utziko dira, markarik eta identifikaziorik gabe, eta baliteke haiek erraustea.

Gorpu-hondarretarako horma-hilobien eta kolunbarioen barruan, gorpu-hondarrak edo errautsak baimendutako ontzietan egon behar dira, hala nola, zinezko kutxetan, kutxatiletan, erlikia-ontzietan edo antzeko batean.

36. artikulua.—Gorpu-hondarren lekualdaketa eta gordailutzea

Gorpu-hondarrak lekualdatzeko eta horma-hilobietan gordailutzeko, kutxa metalikoak erabiliko dira.

Gorpu bat ehorzterako orduan hura txikitu behar den kasuetan, bi baldintza bete behar dira nahitaez: heriotza-egunetik gutxienez 10 urte igaro izana eta materia organikorik ez egotea. Halako kasuetan, gorpu-hondarretarako kutxatan lekualdatuko dira.

37. artikulua.—Edukiera

Horma-hilobi bakoitzean gorpu bakarra ehortzi daiteke, betiere baimendutako hilkutxa batean, lehendik zeuden gorpu-aztarnak behar bezala ateratzen badira izan ezik.

Gorpu-hondarretarako horma-hilobietan baimendutako hilkutxa bakarra ehortzi daiteke.

Kolunbarioen edukiera haien tamainaren arabera izango da. Edonola ere, errautsak banan-banan sartu behar dira, baimendutako kutxatan.

2. ATALA. PANTEOIAK

38. artikulua.—Panteoien esleipena

Panteoia eraikitzeko lursailen gaineko hileta-eskubidea laurogeita bederatzia 99 urterako emango da, gehienez ere. Interes publikoak hala eskatzen badu, Udalak emakida baliogabetu ahal izango du epe hori iraungi baino lehen. Hala gertatzen bada eta egoerak eskatzen badu, kalte-ordainak ordainduko dira. Emakida iraungitzean hileta-eskubidea baliogabetu egingo da eta Udalak bertan den eraikina bereganatuko du. Kasu horretan titularrak ezingo du kalte-ordainik eskatu. Une



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

horretan, betiere ehorzketa-egunetik 10 urte igaro badira, gorpu-hondarrak hilobitik aterako dira.

39. artikulua.—Eraikuntza eta konponketa

Hileta-eskubidearen titularra arduratuko da panteoiak eraikitzeaz, eta hark ordainduko du. Horretarako, dagokion obra-lizentzia eta kidego ofizialaren txostena aurkeztuko ditu Udal Erregistroan, bai eta aurrekontua eta udal araudiak eskatzen dituen bestelako dokumentuak ere.

Obra-lizentzian panteoiaren edukiera adieraziko da, alegia, onartzen duen ehorzketa-kopurua.

40. artikulua.—Mantentzea

Panteoiaren gaineko hileta-eskubidearen titularrak baldintza egokietan mantendu behar du panteoia, estetikari eta apaingarri publikoei dagokienez ere bai, barrutik zein kanpotik.

41. artikulua.—Tokia dagoen egiaztatzea eta hilkutxa espazioaren arabera aukeratzea

Hileta-eskubidearen titularrak panteoian tokirik dagoen egiaztatu behar du ehorzketa bat egin baino lehen. Besteak beste, kontuan izan behar du libre dagoen tokoa, eta horren arabera aukeratu behar du hilkutxa.

Hilkutxa panteoian ehortzi ezin bada, toki nahikorik ez dagoelako, Udalak ehorzketarako baimena kendu dezake, eta ehorzketa gauzatzeko beste aukera batzuk eskaini.

42. artikulua.—Baimenik gabe ehorzteko edo hobitik ateratzeko debekua

Gutziz debekatuta dago Udalaren baimenik gabe eta aurretiaz ekintzari dagokion udal-tasa ordaindu gabe gorpuak, gorpu-hondarrak zein errautsak ehorztea edo hobitik ateratzea.

3. ATALA. LURREKO HILOBIAK



43. artikulua.—Lurreko hilobien emakida

Lurreko hilobietan ehorzteko hileta-eskubidea 15 urterako emango da. Epe hori iraungitzean, gorpu-hondarrak hobitik aterako dira.

44. artikulua.—Lurreko hilobietako gorpu-hondarrak ateratzea

Lurreko hilobian egongo den 15 urteko epea Erregistro-liburuan idatzitako ehorzketa-datatik aurrera zenbatzen hasiko da. Aipatutako epea iraungitzean, Udalak gorpu-hondarrak atera eta hezurtoki komunean gordeko ditu hilabete. Epe horretan, dagokion tasa ordaindu eta gero, jaraunsleek gorpu-hondarretarako horma-hilobi baten emakida eskatu ahal izango dute. Hilabete hori igarota halako eskaerarik egin ez bada, gorpu-hondarrak hezurtoki komunean gordeko dira, markarik eta identifikaziorik gabe, eta baliteke haiek suntsitzea. Lurreko hilobi bakoitzean gorpu bakarra ehortzi daiteke, lehendik zeuden gorpu-aztarnak behar bezala ateratzen badira izan ezik.

Udalak hildakoaren senideei jakinaraziko die, gutxienez hogeit hamar egun lehenago, gorpu-aztarnak zein egun eta ordutan aterako diren. Ordurako, hildakoaren senideek beren jabetzako elementuak kendu behar dituzte, gorpu-hondarrak ateratzeko prozesua oztopa dezakete eta. Bestela Udalak berak kenduko ditu, gerta litezkeen kalte edo hausturen gaineko erantzukizunik bere gain hartu gabe.

Horma-hilobian gorpua ehorzteko hileta-eskubidea iraungitzen denean gorpua oraindik gorpu-hondar bilakatu ez bada, bost urteko hileta-eskubide berria eskainiko zaie senideei, aplikatzekoak diren zerga-baldintzetan.

45. artikulua.—Edukiera

Lurreko hilobi bakoitzean gorpu bakarra ehortzi daiteke, betiere baimendutako hilkutxa batean, lehendik zeuden gorpu-aztarnak behar bezala ateratzen badira izan ezik.



VII. KAPITULUA. HILETA-ESKUBIDEAK, TITULARTASUNA, ESKUALDATZEAK

46. artikulua.—Hileta-eskubidea eta titulartasuna

Hileta-eskubideak dira hilobiak, horma-hilobiak, kolunbarioak, lurreko hilobiak edo panteoiak erabiltzeko baimena ematen dutenak, horietan gorpuak edo gorpu-hondarrak ehorzteko.

Hileta-eskubideak pertsona bakarraren izenean edo pertsona ugariaren izenean erregistra daitezke.

Aurreikuspen aseguruaren konpainiak edo antzekoak ezin dira hileta-eskubideen titularrak izan, beraz, asegurdunei hileta-eskubidea ordaintzeko behar adina kapital ematea ez diren beste eskubide batzuen kasuan, konpainia haiekin adostutako poliza edo kontratuen klausuletan ezarritakoak ez du indarririk izango Udalaren aurrean.

47. artikulua.—Titulua inskribatzea

Hileta-eskubidea bermatzeko, dagokion Erregistro-liburuan inskribatu behar da, eta dagokion ziurtagiria eskuratu.

48. artikulua.—Iraungipena

Hileta-eskubidea iraungitzat jo eta Udalari itzuliko zaio honako kasu hauetan:

- a) Emakidaren epea iraungitzen denean.
- b) Interesdunari errekerimendua egin ondoren, kuota mugaeguneratuak ordaindu ez dituenean.
- c) Ordenantza honetan baimenduta ez dagoen pertsona bati eskualdatzen zaionean.
- d) Hilobiak hondatuta daudenean. Hilobiak hondatuta daudela aitortzeko eta, ondorioz, eskubidea baliogabetzeko, Udalaren ekimenezko administrazio-espedita beharko da.

Posible bada, entzunaldi-izapidea gauzatuko da, eta nolana ere, erabakia hartu baino lehen jendaurrean jarriko da hilabete.

- e) Hilobia bertan behera uzten denean. Hala gertatu dela ulertuko da titularra hil zenetik hamar urte igaro direnean eta epe horretan jaraunselek edo pertsona subrogatuek, oinordetzaz edota bestelako bidez, beraiei eskualdatzea eskatu ez dutenean.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

Jaraunsleek haiei eskualdatzea eskatzen badute eta hilobia behar bezala ez badago, sei hilabeteko epea emango zaie hura konpontzeko. Epe hori igarota konponketak egin ez badira, hileta-eskubidea iraungitzat joko da.

- f) Titularrak berariaz uko egiten dionean.
- g) Ordenantza hau indarrean sartu eta urtebete igaro denean jaraunsleek edo pertsona subrogatuek hileta-eskubidea haiei eskualdatzea eskatu ez dutenean.
- h) Hileta-eskubidea Ordenantza honetan xedatutakoaren aurka erabiltzen denean.

Eskubidea iraungitzat jotzeko, administrazio-espeditentea bideratu beharko da, interesdunak esan beharrekoa entzun ondoren.

Nolanahi ere, pertsona interesdunari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik eskubidea iraungi baino lehen baliogabetzen bada, interesdunak ez du eskubiderik izango ordaindutako dirua bueltan jasotzeko, ezta horren zati bat ere.

49. artikulua.—Hileta-eskubidea eskualdatzea

Hileta-eskubideak, haien edukia eta indarraldia edozein direla ere, ezingo dira inter vivos eskualdatu, kontu bidez zein doan.

Hileta-eskubideak «mortis causa» eskualdatzen direnean, oinordetzazuzenbideko arauak aplikatuko dira.

Alabaina, hileta-eskubidea bi ezkontideen izenean dagoenean, bizirik dirauena hildakoaren onuraduntzat joko da. Eta bi ezkontideek lehenago egin ez bazuten, bizirik dirauenak onuradun berria izendatu ahal izango du, bi ezkontideak hiltzen direnerako.

Onuradunik edo testamentuzko jaraunslarik ez balego, eta nahitaezko jaraunse bi edo gehiago baleude, haien gehiengoek aukeratzen duten pertsonari eskualdatuko zaio eskubidea, edo, bestela, jaraunse nagusienari. Hark onartuko ez balu, bigarren nagusienari eta abar.

Eskubidearen titularra hiltzean, izendatutako pertsona onuradunari, testamentuzko jaraunslari edo aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera «ab intestato» dagokion pertsonari eskualdatuko zaio nahitaez. Horretarako,



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

eskualdatzearen frogagiriak aurkeztu beharko ditu, eta dagokion titulua kreditatu beharko du.

VIII. KAPITULUA. EHORZKETAK ETA HOBITIK ATERATZEAK

50. artikulua.—Xedapen orokorra

Gorpuak zein gorpu-hondarrak ehorzteko edo hobitik ateratzeko, Hildakoen Polizia Sanitarioari buruzko Araudiko arau zehatzak bete behar dira.

Pertsona hil eta gutxienez 24 ordu igaro behar dira gorpua ehortzi ahal izateko.

Gutziz debekatuta dago Udalaren baimenik gabe Gautegiz Arteagako hilerrian gorpuak, gorpu-hondarrak zein errautsak ehorztea edo hobitik ateratzea.

51. artikulua.— Gautegiz Arteagan erroldatuta egotea edo bertan finkatuta egotea

Gautegiz Arteagan ehortzi ahal izango dira hirian erroldatuta edo finkatuta egon diren pertsonen gorpuak, jaiotzetik zein geroago, betiere Udalari eskaera aurkeztu ondoren eta hark aldeko irizpena ematen bada.

Pertsona bat Gautegiz Arteagan finkatuta dagoela ulertuko da udalerriarekin harreman estua duenean. Nolanahi ere, finkatutzat joko dira udalerrri honetako hilerrian ehortziak izan diren 1. mailako senideak (gurasoak edo seme-alabak) dituzten pertsonak.

52. artikulua.—Hobitik ateratzea

Hilobiak ezingo dira ireki eta bertan dauden gorpu-hondarrak ezingo dira hezurtoki nagusira lekualdatu azken ehorzketa egin zenetik gutxienez bost urte igaro arte, edota Osasun-agintaritzak baimena eman arte, baldin eta heriotzaren arrazoia arrisku sanitario larria bada.

Epe horretatik salbuetsita daude Agintaritza Judizialak aginduz hobitik ateratzen direnak, bai eta baltsamatuak izan ziren edo hobitik atera ondoren baltsamatuko diren gorpuak ere.



53. artikulua.—Ehorzteko edo hobitik ateratzeko eskaerak

1. Hileta-eskubideetan interesa duten pertsonak dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte Udaletxeko Erregistro Nagusian:

- a) “Hileta-zerbitzuen eskaera” eredia, Udalean bertan eska daitekeena, beteta eta pertsona interesdunaren sinadurarekin.
- b) Heriotza-ziurtagiria.
- c) Hileta-zerbitzuen jarduera
- d) Hileta-enpresak ematen dituen hileta-zerbitzu horiei dagozkien tasen ordainagiria.
- e) Panteoietan egiten diren ehorzketen eta hobitik ateratzeen kasuan, emakidadun guztien baimena.
- f) Hala dagokion kasuetan, hilobiaren titulua eta/edo gorpu-hondarren lekualdaketaren ziurtagiria.
- g) Hala dagokion kasuetan, errausketa errausketa-labe batean egin izanaren ziurtagiria.
- h) Heriotza arrazoi naturalengatik gertatu ez den kasuetan, auzialdi judicial eskudunaren baimena.
- i) Hondamendien edo anormaltasun epidemiologiko larrien kasuan, baimen sanitarioa behar da.

2. Hobitik ateratzeko eskaera egiteko, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- a) Hileta-zerbitzuak eskatzeko eredia, beteta eta hildako pertsonarekin harremana zuen pertsonaren sinadurarekin (senidea edo bestelako harremana).
- b) Hileta-enpresak ematen dituen hileta-zerbitzu horiei dagozkien tasen ordainagiria.
- c) Panteoietan egiten diren ehorzketen eta hobitik ateratzeen kasuan, emakidadun guztien baimena.
- d) Hala dagokion kasuetan, hilobiaren titulua eta/edo gorpu-hondarren lekualdaketaren ziurtagiria.
- e) Heriotza arrazoi naturalengatik gertatu ez den kasuetan, auzialdi judicial eskudunaren baimena.



54. artikulua.—Ehorzteko baimena

Aurreko artikuluan zerrendatutako dokumentuak aurkeztu ondoren, Udalak eskaera aztertu eta erabaki bat hartuko du.

Irizpena aldekoa bada, hileta-enpresak indarrean dagoen araudian xedatutako epean entregatu beharko du gorpua, edo gorpu-hondarrak, hilkutxa egokian.

Aldeko irizpenak datu hauek izan behar ditu gutxienez: emakidadunaren izen-abizenak, ehorzketaren edo hobitik ateratzearen leku zehatza, emakida data eta epea.

Erabakia kontrakoa bada, berriz, ordaindutako tasa itzuliko da.

Emakida egin ondoren, pertsona interesduna edo hileta-enpresa hilerrira joan beharko da Udalak adierazitako orduan. Bertan udalaren irizpena erakutsi eta hilkutxa entregatuko dio hilerriko langileei, dagokion hilobian sar dezaten.

55. artikulua.—Gorpuak hobitik ateratzea eta lekualdatzea

Gorpuak hobitik ateratzeko eta lekualdatzeko Udalaren baimena behar da, eta hala badagokio, Osasun-agintaritzarena ere bai.

Hileta-eskubidearen arabera gorpua lurperatuta egon daitekeen epea iraungi baino lehen senideek hildakoaren gorpu-hondarrak beste hilerrira batera (nazionala zein atzerrikoa) lekualdatzea erabakitzen badute, aurretiaz beharrezkoak diren baimenak eskuratuta, Udalak ez die kalte-ordainik ordainduko epemuga arte geratzen den denboragatik, eta kasu bakoitzean Ordenantza Fiskalak ezarritako tasak ordaindu beharko dira.

56. artikulua.—Gorpuen manipulazioa

Organismo eskudunen baimena behar da gorpuak manipulatzeko.

57. artikulua.—Gorpua behin-behinean gordetzea

Pertsona hil denetik berrogeita zortzi edo hirurogeita hamabi ordu igaro direnean, nahitaezkoa izango da gorpua behin-behinean gordetzea edo hura baltsamatzea.

58. artikulua.—Hobitik ateratzea

Jarraian zerrendatzen diren kasuetan baimena eman liteke gorpuak hobitik ateratzeko:



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- a) Hilerriko beste hilobi batean ehorzteko.
 - b) Beste hilerrri batera lekualdatzeko, baimen sanitarioa eskuratu ondoren. Gorpua hobitik ateratzen denetik berrogeita zortzi orduko epea dago hura berriz ehorzteko.
 - c) Gorpua berehala errausteko, indarrean dauden xedapenei jarraikiz.
- Gorpu-hondarrak hezurtoki nagusira lekualdatzeko denean, gutxieneko baldintza sanitario batzuk bete behar dira.

IX. KAPITULUA. ORDENANTZA HONEN INTERPRETAZIOA

59. artikulua.—Interpretazioa

Alkatea ahalduntzen da Ordenantza hau aplikatzeko eta garatzeko beharrezkoak diren arau guztiak emateko, bai eta Ordenantza honen interpretazioaren gainean egon litezkeen zalantzak argitzeko ere.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.— Orain arte emandako hileta-eskubide guztiei Ordenantza honetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Bigarren.— Ordenantza hau indarrean sartzen denetik, jaraunsleek eta pertsona subrogatuek urtebete dute hileta-eskubidea beren alde eskualdatzeko eskaera egiteko. Epe hori igaro ondoren, Udalak hasiera eman diezaioke eskubidea iraungitzat jotzeko prozedurari, Ordenantza honetan xedatutakoarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2. artikuluan ezarritakoaren arabera onartu ondoren.”

BIGARREN.- Webgunean argitaratzea, hiritarrek beren iritzia emateko aukera



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

izan dezaten.

HIRUGARREN.- Behin-behineko onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez.

Seigarren.- Zerbitzu publikoak emategatiko eta jarduera administratiboak egitegatiko tasak arautzen dituen ordenantza fiskala aldatzea, egokia bada.

Ikusita Gautegiz Arteagako udal hilerriari buruzko ordenantza onartu dela, aldaketak egin behar dira zerbitzu publikoen eta administrazio-jardueren tasak arautzen dituen ordenantza fiskalean, A) Udal hilerria izeneko idazpuruan.

Kontuan hartuta 2018ko apirilaren 20ko informazio batzordearen aldeko irizpena.

Kontuan hartuta ordenantzak onartzeko prozedura, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarria.

Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU:**

LEHENA.- Zerbitzu publikoen eta administrazio-jardueren tasak arautzen dituen ordenantza fiskalaren A) Udal hilerria izeneko idazpuruaren aldaketa behin-behinean onartzea.

A) idazpuruan zegoen testua ezabatu eta honako hau txertatuko da:

“A) idazpurua

Udal hilerria

1.- Tarifak

- Administrazio-kontzesioak:
- Ehorzteko horma-hilobia 150 €
- Lurreko hilobia 100 €



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- Gorpuak edo gorpu-hondarrak ehorztea:
 - Panteoia 200 €
 - Ehorzteko horma-hilobia 150 €
 - Lurreko hilobia 250 €

- Gorpuak edo gorpu-hondarrak hobitik ateratzea:
 - Panteoia 200 €
 - Ehorzteko horma-hilobia 150 €
 - Lurreko hilobia 250 €

- Errautsak ehorztea edo hobitik ateratzea:
 - Panteoia 120 €
 - Ehorzteko horma-hilobia 120 €
 - Lurreko hilobia 120 €

2.-

a.- Udal hilerrian panteoiak eraikitzeke eta, oro har, beste edozein motatako obrak egiteko lizentziek, obra-lizentziak arautzen dituen Ordenantzan xedatutakoa bete behar dute. Eta lizentzia-eskaerarekin batera obrari dagozkion proiektua eta memoria aurkeztu behar dira.

b.- Zerbitzu bakoitza banaka eta modu autonomoan likidatuko da. Zerbitzua eman ondoren, likidazioa aurkeztuko da, diru hori zuzenean udalaren diru-kutxan sartze aldera, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudiak xedatutako moduan eta epean .”

BIGARREN.- Webgunean argitaratzea, hiritarrek beren iritzia emateko aukera izan dezaten.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

HIRUGARREN.- Behin-behineko onarpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluan ezarritakoa betez.

Zazpigarren.- Ekonomiari eta aurrekontuei buruzko informazioa.

Idazkariak 2018ko aurrekontuaren uneko egoeraren berri eman eta azken hiruhilekoko ordainketak gauzatzeko batez besteko epea jakinarazten du.

Ulertu dute.

Zortzigarren.- Alkatetza Dekretuen kontu ematea.

43/2018 Dekretua.- Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko martxoaren 16rako.

44/2018 Dekretua.- O201810 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

45/2018 Dekretua.- Kanala 39 helbidean jarduerak gauzatzeko lizentzia eskaerari lotuta dokumentazio osagarria eskatzeari buruzkoa.

46/2018 Dekretua.- O201811 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

47/2018 Dekretua.- O201812 ordainketa-agindua, soldatak.

48/2018 Dekretua.- Zelaieta Kaleko 26 zenbakian dagoen Gaziatxu baserria eraitsi ondoren obra-hondakinak kentzeko lizentzia emateari buruzkoa.

49/2018 Dekretua.- F.J.C.B. jaun/andreari (NAN: 72235861-Z) aparkatzeko txartela emateko.

50/2018 Dekretua.- O201813 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

51/2018 Dekretua.- Informazio Batzordearen deialdia 2018ko apirilaren 13rako.

52/2018 Dekretua.- Gobernu-batzarraren deialdia 2018ko apirilaren 13rako.

53/2018 Dekretua.- Informazio Batzorde Bereziaren eta Kontu Batzorde Bereziaren deialdia 2018ko apirilaren 13rako.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

54/2018 Dekretua.- M.I.O.V. jaun/andreari (NAN: 14172747-D) aparkatzeko txartela emateko, bost urterako.

55/2018 Dekretua.- O201814 ordainketa-agindua, gastu orokorrak.

56/2018 Dekretua.- Bizkaiko Foru Aldundiaren Garraio, Mugikortasun eta Lurralde Kohesio Sailari diru-laguntza eskatzeko, hiri-antolamenduko plan orokorra aldatzeko 2018. urtean egingo diren lanetarako.

57/2018 Dekretua.- Ohiko Osoko Bilkuraren saioaren deialdia 2018ko apirilaren 27rako.

Ulertu dute.

Bederatzigarren.- Tokiko Gobernu Batzarraren akordioen jakinarazpena.

23/2018.- “Hilerriko lanak” gauzatzeko kontratu txikia Asier Zubiagari esleitzea (NAN: 78881499-D), 2018ko apirilaren 9an aurkeztutako eskaintzagaratik (sarrera-erregistroa: 694).

24/2018.- “Gautegiz Arteagako Udalarari aholkularitza eta defentsa juridikoa” emateko kontratu txikia Sanz & Saiz Abogados, S.L. erakundeari esleitzea (IFZ: 48965123B), 2018ko martxoaren 23an aurkeztutako eskaintzagaratik (sarrera-erregistroa: 574).

25/2018.- “Agirreta 11 helbidean argi berria” jartzeko kontratu txikia Argi Ola, S.L. erakundeari esleitzea (IFZ: 48485098B), 2018ko martxoaren 27an aurkeztutako eskaintzagaratik (sarrera-erregistroa: 589). Zenbatekoa: 660,53 € (BEZ barne).

26/2018.- Gaztelubide 5 helbideko jabeen erkidegoari (IFZ: H95021911) obra bukaerako lizentzia ematea, Gaztelubide 5 helbideko (Gautegiz Arteaga, Bizkaia) eraikinaren fatxada zaharberritu ondoren.

27/2018.- J.M.L. jaunari (NAN: 72567892-V) Zelaieta 48 (Gautegiz Arteaga) helbideko etxebizitza familiabakarra lehen aldiz okupatzeko lizentzia emateko.



Ulertu dute.

Berria.- Gauteviz Arteagako Udalaren adierazpen instituzionala, 2016ko uztailaren 7an Iruñean izandako gertakariak bortxaketa ordez sexu-abusua izan zirela dioen epaiaren aurrean.

Alkateak proposatuta, 2016ko uztailaren 7an Iruñean izandako gertakariak bortxaketa ordez sexu-abusua izan zirela dioen epaiaren aurrean Eusko Jurlaritzak egindako adierazpen instituzionala txertatu da urgentziaz osoko bilkuraren gai-zerrendan.

Kontuan hartuta ROF/86 Araudiaren 83. artikulua, ekitaldira joan diren kide guztiek aho batez **aitortzen dute premiazkoa dela osoko bilkuraren gai-zerrendan** aurreko paragrafoan aipatutako adierazpena txertatzea, epaia atzo (2018ko apirilak 26) eman baitzen aditzera eta gizarte-alarma handia sortu baita.

Premia hori aitortu ondoren, Udalbatzako Osoko Bilkurak, ekitaldira joan diren kideek aho batez hala erabaki ondoren, **HITZARTZEN DU**:

LEHENA.- 2016ko uztailaren 7an Iruñean izandako gertakariak bortxaketa ordez sexu-abusua izan zirela dioen epaiaren aurrean Eusko Jurlaritzak egindako adierazpen instituzionala onartzea eta bereganatzea. Testuak honela dio:

“Nafarroako Probintzia Auzitegiaren epaia ezagutu ondoren, 2016ko uztailaren 7ko goizaldean Iruñean izandako gertakariak bortxaketa ordez sexu-abusua izan zirela dioena, Gauteviz Arteagako Udalak hitzartzen du:

1. Gauteviz Arteagako Udalak erabateko elkartasuna eta solidaritatea helarazi nahi dizkio biktimari, haren senideei eta hurbileko pertsona guztiei.
2. Gauteviz Arteagako Udalak, errespetuz, auziaren epaiarekiko desadostasuna adierazi nahi du, bereziki gertaerak sexu-abusuen delitu jarraitutzat hartzeagatik. Zentzu horretan, Udala ados dago Nafarroako Gobernuak aurkeztu nahi duen errekursoarekin. Horrez gain, ados dago Fiskaltzak epai horren aurka errekursoa aurkeztearekin.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

3. Gautegiz Arteagako Udalak, epai hori ikusita, emakumeen eta oro har gizarte osoaren desengainua eta haserrea konprenitzen ditu.
4. Gautegiz Arteagako Udalak azpimarratzen du emakumeek erabateko askatasuna izateko eskubidea dutela eta instituzio guztiek hori errespetatuz jardun behar dutela. Hori dela eta, uko egiten die edozein motatako eraso sexistei eta emakumeen askatasunaren aurka doazen bestelako erasoiei.
5. Gautegiz Arteagako Udalak bere konpromisoa berresten du benetako berdintasun eraginkorraren alde jarduten jarraitzeko, emakumeen eskubideak babesteko helburuarekin, bai desberdinkeriak eta emakumeen aurkako indarkeriak, edozein motatakoak, desagerrarazteko ere”.

Hamargarren.- Galderak eta eskaerak

- Juan Felix Naberan Ozamiz jaunak bertan daudenei jakinarazi die 2018ko maiatzaren 2tik aurrera Udaleko Lan-poltsaren behin betiko zerrendan hurrengo den pertsona kontratatuko dela, une honetan baja-aldian dagoen langilea ordezkatzeko.

Gai horren inguruan, bilkuran izan diren kideek erabaki dute Lan-poltsa hori eguneratu beharko litzatekeela, hautaketa-prozesu berria eginez.

- Carlos Mendiola Ugalde jaunak eta Jasone Basterretxea Oyarzabal andreak galdetu dute zer egin behar den Kanalako Gizarte Etxeak diru-laguntza zuzena jasotzeko. Zentzu horretan, idazkariak erantzun die nahikoa dela udaletxean eskaera idatziz aurkeztea, diru-laguntza emateko prozedura abiarazteko.

Horrez gain, esan dute 2015. urtetik Gizarte Etxeak ez duela diru-laguntzarik jaso, eta galdetu dute zenbateko horiekin zer egingo den. Zentzu horretan, idazkariak erantzun du 2018. urteko aurrekontuaren zati bat zuzendu dela Gizarte Etxeari diru-laguntza zuzena emateko, eta osoko bilkuraren edo Alkatearen eskumena dela 2018. urteko aurrekontuaren transferentzia nahikoa egitea Gizarte Etxearentzako diru-laguntza zuzena areagotu ahal izateko.



AYUNTAMIENTO DE GAUTEGIZ - ARTEAGA
GAUTEGIZ - ARTEAGAKO UDALA

- Juan Felix Naberan Ozamiz jaunak bertan daudenei jakinarazi die negoziazioak bideratzen ari direla zenbait jaberekin, lursail batzuen emakida lortzeko eta haiek erosteko, Zelaieta kalean biribilgunea eraikitzeko eta udal hilerriko errepidea zabaltzeko helburuarekin.

- Idazkariak jakinarazi du udal arkitekto aholkulariari Arguiñene baserriko obren gaineko txostena eskatu zaiola, baina oraingoz bukatu gabe dagoela. Eta esan du txostena prest dagoenean berehala bidaliko duela zinegotziek eskuragarri izan dezaten.

- Aitziber Ribas Bilbao andreak galdetu du auzokide batek Montorre eskoletako eskuineko espaloian eraiki duen baranda zein egoeratan dagoen. Idazkariak erantzun dio horren gaineko txostena eskatu zitzaizola arkitektoari, baina lan asko duenez oraindik ez duela entregatu.

- Idazkariak jakinarazi du 2018ko apirilaren 26an Eusko Jaurlaritzak eskaera aurkeztu zuela, Udalari eskatzeko 2019. urtean herriko jaieguna noiz izango den adieraz dezala. Eztabaidatu ondoren, bilkuran izan diren kideek erabaki dute 2019ko irailaren 2a (Antolin Deuna) dela herriko jaieguna ezartzeko datarik egokiena.

*******AKTAREN ITXIERA**

Lantzeko gai gehiago ez dagoenez, Alkate jaunak bertan izan diren guztiei eskerrak eman eta saioa amaitutzat jotzen du, goian aipatutako eguneko arratsaldeko zazpiak eta hogeita hamar minutu izanik. Ondoren akta hau idazten da, ospatuko den hurrengo saioan onartu beharko dena, eta guztia Udalbatzako Idazkari gisa ONTZAT EMATEN DUT.

O°E°

ALKATEA,

Sinatua: Juan Felix Naberan Ozamiz
Aranguren

IDAZKARIA,

Sinatua: Amaia Abanzabalegui